

EAEko IRAKASLEAK

ADSKRIPZIOAK

Atxikipenen behin-behineko emaitzak argitaratu dituzte LHn zein Irakaskuntza ertainetan.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Gogoratu azken eguna 7an izango dela. Nahi gabe eskaera itxi egin bada, berriro irekitzeko eskatzeko hurrengo helbide honetara idatz daiteke: reabirsolicitud@hezkuntza.net. Posta horretan parte-hartzailearen NANA, izen-deiturak, harremanetarako telefonoa (mugikorra) eta parte hartzen duen kidegoa adierazi beharko da. Postaren helbide hori lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaera berriro irekitzeko besterik ez da erabiliko.

ORDEZKOEN ESLEIPENAK

Aurreko ikasturte hasieran esleitutako lanpostuaz jabetu ez ziren hautagaien ebazpena atera dute Hezkuntzaren web orrian.

EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

PREST_GARA

Behin betiko ebazpena argitaratu ostean, plaza libreak dituzten ikastaroak ere eskuragarri daude [Hezkuntzaren web orrian](#).

2023-2024 IKASTURTEKO BIRBAREMAZIOA

ADI!! **Azaroaren 7tik 15era arte**, biak barne baremazioa hasiko da. Bi sektoreetako informazioa guztia Sailaren web orrian eskuragarri dago. [Irakasleak](#) eta [Heziketa Bereziko Hezitzaileak](#).

*Kontuan hartu barematu gabeko hautagaien abuztuaren 31 baino lehenago zerrendetan eskaera eginda izan behar dutela parte hartzeko.

**BIHAR DENOK BILBORA!
HEZKUNTZA LEGE HONI EZI!**